

Kontzertu leku interesgarrienetako bat galdu du Euskal Herriko mapak

Bergarako Txibisto festa aretoak atek itxi ditu behin-betirako

Susmoak baieztatu egin dira eta Bergarako Txibisto kontzertu leku eta diskoteka zenak eten egin du bere lana eta aretoa itxi behin-betirako. Julen Narbaiza bertako arduradunetako batek erabaki honen aurreko eta ondorengoak azaldu dizkio EGUNKARIARI.

JOXAN OIZ / DONOSTIA

Ian Gillan Deep Purple taldeko gitarrajole izandakoaren akorde eta ahotsa Bergaraldean entzun diren azkenak izango dira. Izan ere, arazo ekonomikoek eraginda kontzertu plaza hau itxi egingo bait da. Julen Narbaizak adierazi digunez, ordea, diru premia ez da itxieraren arrazoi bakarra: «faktore mordo pilatu dira eta ixtea derrigorrezko bihurtu da».

Narbaizaren ustez, «hostalaritza orokorrean jasaten ari den krisiak ere jo gaitu, festaleku, diskoteka eta abarren makalaldian bizi gara gaur egun eta horrek badauka bere garrantzia». Aretoak berak sortutako mantenu gastuek ere izan dute zeri-kusirik erabaki honetan, «lokala oso handia zen eta horrek egundoko dirutza eskatzen du, guk ez duguna, noski».

ERTZAINZAREN ETENGABEKO KONTROLA Julenek esaten duen bezala, arrazoi «puntuala besterik ez bada ere», berak salatu egiten du Ertzaintzak izan duen jokaera, zaletu asko uxatu dituen jokaera, alegia: «astero-astero, kale egin gabe, ertzainek alkoholemia kontrolak ezarri dituzte gure aretobidean eta azkenean jendeak, nazkari eta beldurtuta, hona etortzeari uko egin dio; jendea ez bait dago prest ondo pasatzeko 20 edo 30 mila pezetako isuna ordaintzera».

Iazko abuztuan Txibistok diskoteka iharduera ere bertan behera utzi zuen eta kontzertuak eskaini besterik ez zuen egin, «lokalararen erosleek,



RAMONES punk-rock taldeak ere jo zuen Bergarako Txibisto aretoan. 1985ean izan zen lehen kontzertua Alaska y Los Pegamoides taldearen eskutik. Ordudunik eta zazpi urte luze hauetan talde ugari igaro da, kritikoen esanetan akustika onena zuen aretoa izan den Txibistotik. Besteak beste, Immaculate

Fools, Toy Dolls, Lloid Cole and the Commotions, Sugarcubes, The Pixies, Sisters of Mercy, Saxon, Urian Heep, Napalm Death, Barricada, Radio Futura eta Hertzainak. Azken talde honek iaz grabatu zuen zuzeneko diskoa bertan, eta hori izango da kontzertu areto honek egindako ahaleginaren testigantza.

✓ **Arazo ekonomikoek Txibisto hondoratu duten arren, beste arrazoi zehatz eta orokoragoek ere izan dute eraginik.**

lokala pabilioi industrial gisa erabiliko dituztenak, obretan urte hasiera arte ez zirela hasiko esan ziguten eta orduan erabaki genuen lau hilabete horietan asteroko kontzertua besterik ez egitea».

Halako leku handi batean bakarrik kontzertuak egiten ezin dela irau ziurtatu digu Julen Narbaizak, horregatik festalekua izan da ere azken zazpi urtetik hona. Narbaiza penaturik agertzen da ixtea dela eta, «ha-

lako kontzertu azpiegitura txiki bat sortzen ari ginen eta Euskal Herrian, eta sare hau makaltzea beti da penagarria».

HONELAKO ABENTURAK SOSIK EZ

Narbaiza eta, Txibistoko bultzatzaile eta sortzaileak, orain 15 urte hasi ziren Bergarako jaietara taldeak ekartzen, gustoko musika suspertzen eta bertako elkarte kulturalan lan egiten. Orduan pentsatu zuten «zergatik ez tornioiak egiteari utzi eta honetaz bizi, gustoko dugun lanarekin bizitzeko ahalegindu».

Emaitzak ekonomia aldetik ez omen dira oso onak izan, «oso txarrak» Julen narbaizak esango lukeen bezala, «egia esanda hobeto tornioak egiten segi izan bagenu», gogorazten digu erdi txantxetan, erdi se-

rio. «Atzerritik taldeak ekartzeko azpiegitura behar duzu, joleku asko, ze talde handi bat ekarri ahal izateko beste bost txiki ekartzera behartzen zaituzte eta horretarako lekuak behar dira». Berak dioenez, kontzertu antolaketari utziko dio eta entzule soila izaten segituko du, «nere gustoko taldeak entzuteko urrutiago joan beharko dut, ezin izango ditut Bergaran bertan entzun, baina tira musikazale izaten segitzen dugu».

Wim Wendersen hurrengo bi filmek Ciby 2.000 etxearentzat izango dira

PARISE

Wim Wenders zinegile alemanak Francis Bouygues enpresariaren Ciby 2.000 izeneko ekoiztetxearentzat egingo ditu bere hurrengo bi filmek, enpresa honek herenegun plazaratutako komunikatu batek dioenez. Bi filme egiteko kontratua sinatu du dagoeneko Wendersek, Ciby 2.000koek adierazitakoaren arabera.

Bi filme horietako lehenengoaren errodaia lanak aurton hasiko ditu Wim Wendersek, baina oraindik ez da ezagutzera eman noiz zehazki, eta ezta zein izan daitekeen bere gaia edo argumentua ere.

Ciby 2.000 enpresak ekoiztutako azken filmeen artean, Pedro Almodovar zinegile espainiarraren 'Tacones lejanos' aipa daiteke; atzo bertan izan zuen Almodovarren filme honek Pariseko bere estreinaldia. David Lynch zinegile estatubatuarrek ere lau filmerako kontratua sinatu du ekoiztetxe honekin, eta

Pasoliniren testu ezezagunak argitaratuko dira aurten


ERROMA

Pier Paolo Pasolini zinegile eta idazle italiarraren hainbat idazki argitaragabe kaleratuko dituzte aurten Italian. Bi eratakoak dira aurten lehen aldiz argitaratuko diren Pasoliniren idazlanak: amaitu gabeko nobela bat batetik, eta zineari buruzko testu solteak bestetik.

Amaitu gabeko nobelak 'Petroleo' du izenburuztat, eta Pasoliniren garaiko Italia gai nagusizat. Pasolinik bere «testamentu ankerra» egin nahi izan zuen 2.000 orrialde inguruko nobela honekin, baina ezin izan zion amaiera eman, 1975ean hil egin zutelako Erroma hiriko kanpoaldeko auzune batean. Einaudi argitaletxeak plazaratuko du amaitu gabeko nobela hau datorren udazkenean. Argitaletxe horretako iturriek adierazi dutenez, nobela osatzen duten 2.000 orrialdeetatik 700 bakarrik zituen Pasolinik erabat bukatutzat emanak.

Zineari buruzko testuak, berriz, Garzanti argitaletxeak kaleratu du eta Pier Paolo Pasolini Fundazioak banatuko ditu hil honen amaieran, 'Le regole di un'illusione' ('Ilusio baten arauak') izenburuarekin.

Baina Pasoliniren aipamenak egiteko motibo gehiago ere izango da urte honetan zehar. Otsailaren erdialdean hasi eta hilabete oso batez, Erromako Erakusketa Jauregian, Pasolinik sortutako filme guztiak emango dira. Horrenbestez, Pasolini oso aipatua izango da Italian urte osoan zehar.



Wim Wenders.

Bernardo Bertolucci italiarraren hurrengo lana ere Ciby 2.000 ekoiztetxearena izanen da: 'Budaren bizitza'.

Oraindik Euskal Herrian estreinatu gabe dago Wendersen azken filmea: 'Bis das Ende der Welt' ('Munduaren amaieraraino').

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

EDINFOR BILBO
INFORMATIKA ERRAZ
IKASTEKO ETA EUSKARAZI,
HATOR EDINFOR BILBO-RA.
HASIERATIK EDOTA
PROGRAMARIK ZAILENAK
ERREZTASUN OSOZ
ERABILTZEKO.
Fernández del Campo Kalea, 14
Tfnoa.: 410 10 56 - Fax: 442 48 52
Informaziorako ordutegia
Goizez: 9-1 - Arratsaldez: 4-9

Bilbon pisu zentriko batean bizi naiz. Bi pisukideen bila nabil. Informazioa jaso nahi baduzu dei ezazu

Tfnoa.: 94/4169375



TANDEM
Zure "Alemantegia"

Hogei hamar plaza Udalak ordaindutako ikastaro batean, alemanik ikasteko eta Alemanian praktikak egiteko. **Beste ikastaroak:** maila eta ordu guztiak. **Flexibel:** 9.800 pta. otsailetik maiatz bitartean. **"Ikastaro trinkoa":** ikasbiderik modernoena. **"Alemana euskaraz"** ere. Froga ezazu dohan 1 edo 2 astetan. **ARGIBIDEAK:** 11.00etatik 13.00etara eta 18.00etatik 19.30era.

TANDEM: Iztueta kalea, 7 (Gros sarreran) DONOSTIA Tfnoa.: 291 258



Ingelesezi ikasteko beste era bat. **ZATOZTE!**

Elkano, 8 behea
Tfnoa.: 420831 DONOSTIA

Filmaketa baterako erosi behar izandako Renault Espace TX 2 bat daukagu salgai, SS-3929-AL. Hamar mila Km. egin ditu, denak Euskal Herrian eta ez gurdibidetan. Sapaian leihoa dauka. Dialoganteak gara. Tfnoa.: 293414. (Donostia)

euskaltegiak
DONOSTIA - ERRENTERIA
ALTZA herria - 39 43 77
MONPAS - 27 27 11
ORTZADAR - 52 66 57
URUMEA
R. ARREGI - 46 46 55

ATZO IKASI GAUR IRAKATSI
IRAKASLE IZATEKO IKASTAROA
Izenemate epea:
Urtarrilak 30
AEK (Compañia, 25-2)
Tfnoa.: (948) 22.02.13
IRUÑEA